

Donostian, 2010eko martxoaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Kintana, Xabier, idazkaria
Lizundia, Jose Luis, diruzaina
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua
Aleman, Sagrario
Arejita, Adolfo
Azkarate, Miren
Charriton, Pierre
Davant, Jean-Louis
Goenaga, Patxi
Haritschelhar, Jean
Lakarra, Joseba
Larre, Emile
Oñederra, Miren Lourdes
Peillen, Txomin
Salaberri, Patxi
Sarasola, Ibon
Toledo, Ana
Torrealdai, Joan Mari
Uribarren, Patxi eta
Videgain, Xarles

Pello Telleria idazkariordea, eta, zegozkien gaietan, Alfontso Mujika eta Aritz Abaroa jaunak.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak, ahala Lourdes Oñederrari; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; J. Mari Torrealdai, egonez den tarterako, ahala A. Sagarnari; Pello Salaburuk, ahala Miren Azkarateri; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari; Andres Urrutiak, egonez den tarterako, ahala X. Kintanari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko Batzar-aretoan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Aurreko aktak onartzea. Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarren aktak ontzat eman dira.

2. Hasi aurrekoak. Euskaltzainburuak, gaurko ekitaldietarako oharrak egin ditu, ordutegia, aritzeko modua eta bestelako xehetasunak azalduz.

Era berean, arratsaldeko 6etan, Donostiako Udaletxearen Batzar-Aretoan M.

Lourdes Oñederraren sarrera hitzaldia izanen dela azaldu du. Horretarako, biltoki-
ra garaiz heltzeko, euskaltzain guztiak ordezkari izan behar dira, eta bertan nork
bere domina jasoko du.

3. Euskaltzain omenduei zorionak.

3.1. Jose Antonio Aranari omenaldia Gernikan. Martxoaren 13an, Ger-
nikan, Jose Antonio Aranari, bere jaioterriko hainbeste erakundek eta kultur
elkartek omenaldia egin diote; horien artean honako hauek: bertako Udalak,
Andra Mari Koralak, Kultura Etxeak, Gernika-Lumoko Euskaltegiak, Segundo
Olaeta Musika Eskolak, Julia Foruria Musika Eskolak, Gernikazarrak, *Aldaba*
aldizkariak eta Marijesiek.

3.2. Jean Haritschelhar UNEDek omendua. Madrilen, martxoaren 23an egin-
dako ekitaldi batean, UNEDek Jean Haritschelhar, euskararen fabore egindako lan-
nagatik, *Honoris Causa* doktore izendatu berri du. Berarekin batera, Antoni Badia i
Margarit, Humberto Lopez Morales eta Xesus Alonso Montero jaunei izendapen
berbera eman zitzaizkien, katalanaren, gaztelaniaren eta galizieraren alde buruturiko
lanagatik. Euskaltzaindiak bere kide bioi bihotzez zorionak adierazten dizkie.

**4. Exonomastika. «Europako geografia fisikoa. Oronimia: mendikateak,
mendiguneak» aurkeztea.** Batzordeak eginiko proposamena Alfontso Mujikak
aurkeztu eta zerrendako izen batzuen berezitasuna eta garrantzia azpimarratu ditu
(turismoa, historia, kirol-lekuak, etab). Kasu batzuetan, beste hizkuntzetan egiten
den bezala, guk ere bitasuna utzi eta nolabaiteko sinonimia onartu dugu: *goi ordoki*,
goi lautada... Halere, beste kasu berezi batzuetan, bertako izena osorik eta itzuli gabe
utzi da, bestelako tradizioz ez dagoelako: *Sierra Morena*, *Sierra Nevada*, *Montes*
Universales. Kontsultak ere egin dira (Juan Karlos Lopez-Mugartzaren *Erronkari eta*
Ansoko toponimiaz lanean, adibidez), Pirinioetako *baso*, *oihan* eta *zaltu* hitzen erabi-
lera eta esanguraz. Oharrak egiteko epea: apirilaren 20rako.

5. Batzorde ahaldunduen zalantzak eta baimen eskariak. A. Sagarnak eta I.
Sarasolak batzorde honetan sorturiko zalantza batzuk ekarri dituzte, horiek erabaki-
tzea osoko Batzarrari dagokiolarako. Hitzak banan-banan aztertu eta, kasu batzuetan
botoetara eramanez ondoren, ondokoak onartzea erabaki da:

gaitzerizte. Honelako forma zaharrekin *eritz-* forma hobestea onartu da (*oneriz-*
tea, *gaitzerizkoa...*)

gaileta iz.g.e. 'edalontzia' sarrera isiltzea.

gaileta

galtzontzilo Heg. Ik. **galtxoin**

garba 1 iz. ‘garrama, tresna’

garba 2 iz. ‘azaoa’

gerba Lehen itzulian onartu zen bezala utziko da, hots, iz. ‘intxaurrondoaren eta gaztainondoaren lore multzo zintzilikaria’.

gisugile Ipar. ‘karegilea’

kisuskile Naf. ‘igeltseroa’

gordetxa ‘bioleta’ sarrera isilduko da.

hax ‘ardatza’

haxean (izan), haxean ezarri

hilotza adlag.: hilotza erori zen. Sin. **hilotzik**

hilotzik Sin. **hilotza**

hilotz iz. ‘gorpua’

6. Ahozko Tradiziozko Hizkeren Corpora egitasmoari buruzko azalpena.

Adolfo Arejitak aurkeztu du, Aritz Abaroarekin batera, arlo honetan egindako lana, behar den bezala etiketatua. Prozesu osoaren berri emateko, karpeta batean azaldurik eskaini du: grabaketa, ordenagailura eramatea, formatu-aldaketa, oinarriko etiketatzea, zatiketa, azken etiketatzea eta transkripzio hautatuak. Gogoraz duenez, mota honetako lanak lehendik ere egin dira, era zuzeneko eta zeharkako bilketa materialak eskuratzeko. Prestaturiko lanaren erakusgarri batzuk ere eskaini ditu, elkarrizketa grabatu batekin.

Galdera-txandan, J. L. Lizundiak galbidean dauden ofizioak aipatu ditu, adibidez, euskaraz *barrenariak* (gatzelaniaz *barrenadores*) deituena, eta horiek herri-oroi-mentetik erabat desagertu baino lehen biltzekoak direla. Tradiziozko lanbideei dagokienez, horiekin merkatu-hiriek izandako garrantzia azpimarratu du, ofizio-izen batzuk bilatzekotan, horrelako tokietan aztertu beharko lirakeela nabarmenduz. P. Goenagak, bilduriko lana dela eta, transkribatzeko, nolako egokitze lana egiten den galdetu du, bai eta, bildurikotik, ehuneko zenbat den baliagarri.

Bestetik, P. Salaberrik grabaketa guztiak ahozkoak izan ote diren jakin nahi izan du, eta ea bideoaz ere ez ote den lanik egin, beste batzuek aspaldian egiten duten bezala. Erantzunean, A. Arejitak grabatzeak aldean dakarren diru-kostu handia aipatu du eta beti ere hala egitea merezi al duen galdetu du. Bestalde, Iparraldean, Xipri Arbelbidek eginiko grabazioak ere hor integratzeko posibilitatea gogoratu du. Euskaltzainburuak, bestetik, arlo horretan orain arte egindako lana aipatu du.

P. Xarritonek, lan hori Atlasarekin eta Trebichen lanarekin loturik dagoela gogorarazi du. J.-L. Davantek, gainera, P. Lhanderen gutun batzuk *Euskera*-n argitaratu zirela aipatu du .

7. Kudeatzaile berriaz

A. Urrutiak, ondoren, J. J. Zearreta kudeatzaile zenduaren postua betetzeko, Euskaltzaindiak, Campo & Ochandiano enpresarekin egindako deialdiaren azken ondorioen berri eman du. Horretara aurkezturiko pertsonak 98 izan dira, eta, horien *curricula* behin eta berrito aztertu ondoren, 12, 7 eta, azkenean, 4 kandidatu gelditu dira. Horien artean azken hautapena egiteko, epaimahaikideak izendatu dira: Zuzendaritzatik A. Urrutia euskaltzainburua, J. L. Lizundia diruzaina eta A. Sagarna Iker sailburua; euskaltzain osoen aldetik S. Aleman, eta A. Arkotxa (frantsesezko probarik egin behar izanez gero), eta Euskaltzaindikoko langileen ordezkartizan beste pertsona bat. Bestalde, Euskaltzainburuak, gelditu diren kandidatuen merezimendu aipagarrienak adierazi ditu bai jakintzan eta bai gestio-mailan, eta, tamalez, horietako inork frantsesa menderatzen ez duelako hutsunea ere. J. L. Lizundiak, postua lortzeko eskatu beharrekoak kontuan izanda, hautatzekoaren perfilean areago sakondu eta, plantila kudeatzeko trebetasuna, administratzeko gaitasuna, etab. aipatu ditu. Aurreikuspenen arabera, kandidatuak apirilean zehar aztertuko lirateke, azkenean hautatua maiatzaren hasieran lanean has ledin.

8. Hiztegi Baturako lankide berria. Jose Antonio Adurizen osasun-arazoak kontuan izanik, berorren laguntzaile gisa, Andoni Sagarnak Zuzendaritzari Ainhoa Arregi Saratxo andrea Hiztegi Batuko lantaldeko kide izendatzea eskatu dio. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eskari hori aintzat hartu du eta horrelaxe jakinarazten dio Osokoari, eta honek berretsi egin du erabakia.

9. Eskuarteokak

9.1. Azkue Sariak

Martxoaren 10ean 2009ko R. M. Azkue literatur sariak ebatzi ziren, 11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduak.

Epaimahaikoak, A mailan (11-14 urte bitartekoentzat) Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta izan ziren, eta B mailan, berriz, (15-18 urte bitartekoentzat) Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Ibon Egaña. Orotara 214 lan aurkeztu ziren. Sarituak ondoko hauek izan ziren:

A Mailan**Narrazio alorrean:**

- 1.a Mikela Atxoarena: *Zoritxarreko sekretua.*
- 2.a Maialen Akizu: *Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu.*
- 3.a June Ugalde: *Koaderno txikia.*

Olerki alorrean:

- 1.a Maialen Akizu: *Nire Herria.*
- 2.a Mikela Atxoarena: *Gau beltza.*
- 3.a Lorea Solana: *Maitasun izpiak.*

B Mailan**Narrazio alorrean:**

- 1.a Nerea Eizagirre: *Korapilo bako soka.*
- 2.a Amaia Iturriotz: *Euria.*
- 3.a Nerea Eizagirre: *Zure ispiluaren ximurrak.*

Olerki alorrean:

- 1.a Leire Arenas: *Flora.*
- 2.a Leire Arenas: *Txorien jauzi ttikiz.*
- 3.a Nerea Ibarzabal: *Musika.*

9.2. Literatura Ikerketa batzordearen hitzaldiak. Aurtengo otsailaren 19an Literatura Ikerketa batzordeak Donostian eginiko bilkuran honako hau erabaki zen: 2010eko irailaren 17an goizean ohiko bilera eta arratsaldean, Jean Martin Hiribarren-en omenez, 17:00etatik 18:30etara, ondoko hizlariok mintzaldi bana egitea:

- Jean Haritschelhar: *Hiribarren eta Lore Jokoak.*
 Ana Toledo: *Hiribarren eta Euskaldunak.*
 Patri Urkizu: *Iruñeko bestak.*
 Xipri Arbelbide: *Hiribarren: bizitza eta giroa.*

9.3. Hurrengo Batzarra: Apirilaren 30ean izango da Bilbon, beti bezala, goizeko 10etan.

9.4. Patxi Uribarrenen sarrera-hitzaldia. Euskaltzain honen sarrera hitzaldia maiatzaren 28an izango da, Aramaion, hileko batzarra egingo den egun berean.

9.5. Sarako Liburu Azoka. Apirilaren 5ean, Pazko astelehenean, Sarako Liburu Azokan Euskaltzaindiak 4 liburu aurkeztuko ditu: Gratien Adema «Zaldubi»ren *Kantikak*, eta *Prediku zenbait*, *Hazpamen eginak* (1854-1860) Henri Duhauk prestaturiko edizioetan. *Jesü Kristen imitazioea* (1757), Martin Maister-en itzulpena, Jean-Louis Davantek paratua, eta *Birjinia, edo donceil christaba*, Michel Ange Marin fraideak frantsesez 1752an Parisen argitaratu zuen *Virginie, ou la vierge chrétienne. Histoire sicilienne, pour servir de modele aux filles qui aspirent à la perfection*, obraren euskal testua, itzultzaile ezezagun batek egina eta oraingoan Jose Antonio Mujikak moldiztegirako prestatua. Euskaltzain guztiak gonbidaturik daude ekitaldi horretara joatera.

9.6. Tolare baserriaren inguruan. Euskaltzainburuak eta A. Sagarnak azaldu dutenez, Donostiako Udalak berea duen *Tolare* izeneko baserria Euskaltzaindiarentzat uzteko asmoa azaldu du. Baserri hori, Euskal Herriko Unibertsitatearen Ibaetako Campus aldean kokatua, zaharberritua da eta oso ondo letorke Akademiaren zereginetarako. Udalaren aldetiko uzkontza egiteko dokumentuak jada prestaturik daude, eta egin beharreko ukitu eta argitu beharreko arazo ekonomiko batzuk konpondu ondoren, Donostian kokaleku berria laster izango dugula espero da. P. Goenagak eta beste zenbait euskaltzainek egin dituzten galdera eta argitasun-eskeei ere erantzun diete.

10. Azken ordukoak

10.1. Argitalpenak. *Erlea* aldizkariaren 2. zenbakia, B. Atxagaren ardurapeko literatur aldizkari honen bigarren zenbakia, oraingoan Irlandako literaturari eskainia, eta *Beñat Oihartzabali Gorazarre* omenezko liburua banatu zaizkie euskaltzainei.

10.2. Jose Mari Iriondori domina. Joan den hileko ekitaldira ezin etorritz, oraingoan ohorezko euskaltzainaren domina eman zaio Jose Mari Iriondo jaunari.

Ordu biak laurden gutxiagotan amaitu da bilera.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2010eko martxoaren 26an

Gaur, martxoak 26, egin da Miren Lourdes Oñederra Olaizola euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Donostian, Udaletxeko batzar aretoan, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Aurelia Arkotxa, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdei, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Jose Antonio Arana Martijak eta Pello Salaburuk.
- Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Gorka Aulestia, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Iriondo eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi dute Pakita Arregik eta Xabier Gereñok.
- Euskaltzain urgazleak: Antton Aranburu, Xipri Arbelbide, Xabier Artola, Jon Aurre, Mikel Bujanda, Iñaki Camino, Pello Esnal, Pilartxo Etxeberria, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Ricardo Gómez, Jazinto Iturbe, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jesus Maria Makatzaga, Xabier Mendiguren, Alfonso Mujika, Jose Antonio Mujika, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Elixabete Pérez Gaztelu, Paskual Rekalde, Koro Segurola, Pello Telleria, Patri Ur-

kizu, Arantza Urretabizkaia. Ezin etorria adierazi dutenak: Ricardo Badiola, Xabier Erdozia, Jose Ramon Etxebarria eta Iñaki Irazabalbeitia.

– Batzordekideak: Iñaki Aldekoa eta Elena Martinez de Madina. Ezin etorria adierazi du Erramun Osak.

– Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du, eta ekitaldian zehar kasuan kasuko atalari bidea eman.

Odon Elorza alkatearen ongietorriarekin, eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrarekin hasiera eman zaio ekitaldiari.

Ondoren, Xabier Kintana eta Joan Mari Torreal dai euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Miren Lourdes Oñederra *Drift* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera. Erantzuna Miren Azkarate euskaltzainak eman dio, *Ur lasterraren dama* hitzaldiarekin.

Lourdes Oñederra: *Drift*

Drift hitza izenburutzat hartu du Miren Lourdes Oñederrak, hizkuntzaren sena eta izaera ezin hobeto irudikatzen duelakoan; Edward Sapir hizkuntzalariaren *Language* liburua izan du inspirazio, hizkuntzaren aldaketa historikoari dagokion 7. kapituluaren izenburua, hain zuzen ere. Uraren edo airearen mugimenduari, edo elementuok eragindako mugimenduari esaten zaio *drift* ingelesez eta, Oñederraren aburuz, «hizkuntza airez eta memoriaz dago egina, hizketa airezkoa da, aire mugimendua, airea mugitzea».

Hori horrela da, bere aztergai nagusia den fonetikari dagokionez ere, «uhinetan mugitzen den hotsa da ahotsa» eta horrek azaltzen du hizkuntza baten etengabeko eraldaketa eta eboluzioa. Finean, «hizkuntzaren etengabeko aldaketa, mugimendua, ur lasterrarena bezalakoa, airearena bezalakoa da, komunikazio behar eta baldintzetara egokitze».

«Hotsak urrutiago daude gure jakinaren gaineko ezagutzatik. Behar bada horregatik gramatikagileek, idazleek, irakasleek, araugileek ere kasu gutxiago egin izan diote ahoskerari».

Baina berak ulertzen du ahozkoa hizkuntzaren garapenaren giltza dela, hizkuntzaren beraren jatorria bertan dago: «Hizkuntza hizketa egitean bere kasa aldatzen da, hiztunoi baimenik eskatu gabe, baina guk, hiztunok aldatzen dugu, gauzei ize-nak jartzeko beharragatik, gure memoriaren mugengatik, entzuten duguna ulertu egiten dugula sinesteagatik, mundua puskaka, esaldika antolatzearen zailtasunak behin eta berriz gaintitu, konpondu nahi izate horregatik, eta, ahoskerari dagokionez, gure entzumen mugengatik, gure gihar alferren lana arintzeko grinagatik... Berrikuntzak, etengabe, hizkuntzaren maila bakoitzaren barreneko gatazkan eta mailen arteko etengabeko norgehiagokan, hizkera eta garaien arabera, noiz eragile bat, noiz beste bat lehenesten delarik».

Bere baitan hartu berri duen Euskaltzaindiaren egiteko nagusia, bere ustez, hizkuntza bideratzea baino, zaintzea da, «euskara behar adina erabili nahi bada, erabilera maila guztietara egokitzeak berebiziko garrantzia du. Hor behar du gure zaintza». Eta bere egiteko partikularrari dagokionez, «ni, euskaltzainek horretarako deitu izanaren ohoreari ahal bezain ondo erantzuten saiatuko naiz, euskararen hai-ze eta urak olatu bihur ditzaketen zurrumbilo guneak bilatuz, aztertuz ur lasterren bideak, *drift* horren nondik norakoak fonema eta doinuen esparruan».

Miren Azkarate: *Ur lasterraren dama*

Hitzak bere konplexutasuna du, ñabardura bat baino gehiago, eta askotan hautatu egin behar da. «Lourdes Oñederrak –azaldu du Azkaratek– ez zituen hitzak aukeratu ikerketaren munduan murgiltzeko. Bestela esanda, hitzak txanpontzat hartuko bagenitu, hauek bezala, bi alderdi dituztela esango genuke: belarrietara heltzen den hots multzoa, alderdi fonikoa, eta esanahia, hots-multzoak irudikatzen duen objektua, «zera». Euskaltzain berriak hitzak baino nahiago izan ditu hitzak osatzen dituzten hotsak».

Oñederraren azken 30 urteotako ibilbidearen ikerketa-gai nagusiari helduz, Azkaratek adierazi duenez, «letrak irakurtzeko eta idazteko behar ditugu. Baina hizketa letren eta irakurketaren aurrekoa da; lehena, jatorria, hizketa da. Eta hizketaren lehengaiak letrak ez, baina hotsak dira; edo zehazkiago esanda, fonemak». Zailtasunak zailtasun, «aspalditik arduratu da Lourdes Oñederra kanpoko ur-laster-rrak gurera ekartzeaz: maileguak nola geureganatzen ditugun, euskara bigarren hizkuntza gisa irakasteak zer eskatzen duen aztertzeaz, euskaraz jabetzea nola gertatzen den ikertuaz».

Fonetikan eta Fonologian aditua den Lourdes Oñederraren ibilbide profesionalan hainbat geldidune egin du Miren Azkaratek. Gogora ekarri du bere unibertsitate-jarduera –Euskal Herrian zein kanpoan–, gogora ekarri bestelako lanak ere –EiTBn hizkuntza aholkulari, eta ordenagailuek euskal soinua prozesatzeko ikerkuntza proiektu buru, besteak beste– eta Oñederrak jorratu dituen bi iker-lerro nagusiak nabarmendu ditu: «ahoskera arautzeko ahalegina, eta euskara bigarren hizkuntza dutenek ahoskera egokia lortzeko egindako lana».

«Araugileek –gaineratu du Azkaratek– kasu gutxiago egingo zieten (egingo genien) hotsei, baina ez gaur «ofizialki» gure artean hartzen dugun euskaltzainak. Horixe izan da bereziki Euskaltzaindian egin duen lana, bere ekarpena. Ahoskera, ebakera, erregistroak...

Oñederraren ekarria, baina, ez da horretara mugatzen, hitzak literatura bilakatzeko haren dohainak goratu dituelarik. *Eta emakumeari sugeak esan zion* liburuak aipamen berezia merezi du, Azkarateren aburuz, «hala aitortu baitiote irakurleek» eta baita hainbat sarik ere. Eta horri lotuta, hitz artean murgildutik beste behin, azken aldiko bere itzulpen-lanak gogora ekarri ditu.

Ondoren, Miren Lourdes Oñederrak, Barne Erregelaren 64.8. atalean esaten dena betetz, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela» agindu du. Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina eman dizkio.

Ekitaldi akademikoa bukatzean opariak eman dizkiote Miren Lourdes Oñederrari: Donostiako Udalaren Txistulari Taldeak Ohorezko kontrapasa jo du eta Martin Barandiaranek –M. Lourdes Oñederraren lehengusu txikiak– dantzatu du; Donostiako Udalaren izenean, Odon Elorza alkateak *Zubietako akten liburua* oparitu dio; EHUren izenean, Fernando Garcia Murga Letren Fakultateko dekanok Ines Gonzalez de Zarate eskultorearen eskultura bat eman dio; Jabier Muguruza musikoak eta Jose Ramon Soroiz aktoreak «Patrick Süskind eta Sommer» jaunen agurra eskaini diote.

Ekitaldia iluntzeko 19:30ean bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria